



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko martxoaren 13a

37. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Toki entitateei egindako kapital-transferentziei buruzko fiskalizazio txostena (2003-2012), Kontuen Gantzerak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Toki entitateei egindako kapital-transferentziei buruzko fiskalizazio txostena (2003-2012), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 24an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Toki entitateei egindako kapital-transferentziei buruzkoa (1982-2011), ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Toki entitateei egindako kapital-transferentziei buruzko fiskalizazio txostena (2003-2012), Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
 - II.** Transferentziak 2012ko aurrekontuan eta horien bilakaera azken urteetan (5. or.).
 - III.** Araudia (6. or.).
 - IV.** Helburua, norainokoa eta mugak (7. or.).
 - V.** Ondorio orokorrak (8. or.).
- Eranskinak (15. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak Nafarroako toki entitateei egindako kapital-transferentziei buruzko lan bat sartu zuen 2013. urterako jarduera-planean.

Transferentzia esaten zaie Nafarroako Gobernuak, hartzaileengan zuzeneko ordainik eragin gabe, egindako ordainketei. Transferentzia horien helburua eragiketa arruntak edo kapitalekoak finantzatzea den kontuan hartuta, transferentzia arruntak edo kapitalekoak izango dira.

Transferentzia terminoak bi kontzeptu biltzen ditu: transferentziak zentzu hertsian eta diru-laguntzak.

Transferentziak dira, zentzu hertsian, zehatzak edo bereziak ez diren eragiketak finantzatzeko helburua dutenak; diru-laguntzak, aldiz, eragiketa zehatzak eta bereziak finantzatzeko helburua duten funtsak dira.

Txosten honetan transferentziei buruz zentzu zabalean arituko gara, hau da, diru-laguntzak ere kontuan hartuta.

Txosten honekin datu eta informazio batzuk lortu nahi ditugu Nafarroako toki entitateentzako transferentzien kudeaketa gertatzen deneko esparru orokorrari buruz. Enpresa pribatuei, familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei egindako transferentziei buruz 2012an egindako txostenaren jarraipena da.

Transferentzia hauetatik, kopuru garrantzitsuenak toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren Tributuetan parte hartzeko Funtsari dagozkio. Funts hori Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean araututa dago eta haren kudeaketa ez da txosten honetan aztertzen.¹

Lege horrek honakoa ezartzen du:

123. artikulua

“1. Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko modua Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeetan finkatuko da, urte aunitzetarako ere finkatzen ahal dela.

2. Ekitaldi bakoitzean esleituko den partaidetzaren zenbatekoa heldu bezala banatuko da:

- Transferentzia arruntak
- Kapital-transferentziak
- Beste laguntza batzuk.

3. Ohiko transferentzien bitartez emanen den partaidetzaren zenbatekoa udal eta kontzejuen artean banatuko da. Banatzeko formula justizia eta proportzionaltasuneko irizpideetan oinarrituko da eta, besteak beste, honakoetan: populazio indizeak, gastua, ahalmen ekonomikoa, baliabide berekiak eta udal barrutian ematen diren zerbitzu publikoetarako zuzkidura.

¹ Lehenago, Nafarroaren Ogasun Publikoen Erreformari buruzko 1981eko Arauan, udalek eta kontzejuek Nafarroako zergetan parte izanzen zutela ezartzen zen.

Zergetatik heldutako zenbateko horrekin, funts bat beteko da ekitaldi bakoitzean, zeharkako zergen bidez aurreikusitako diru-sarreraren gutxienez ere ehuneko 10ekin eta zuzeneko zergen gutxienez ere ehuneko 45ekin.

Funts horretatik, ehuneko 70 banatuko da kontuan hartuta zein diren populazio-adierazleak, gastu arruntak, eta abar; gainerako 30a banatzeko, kontuan hartuko dira zer-nolakoak diren finantza-egoera eta zerbitzu publikoen hornidura, eta parte hori zerbitzu publikoen horniduretarako aurreikusitako inbertsio errealek gehienez ere % 65 finantzatzeko erabiliko da.

4. Halaber, kapital transferentzietarako ezarritako zenbatekoaren banaketa inbertsio planak sortzen dituzten foru legeetan paratuko den moduan egingen da.. Hartan, gainera, mankomunitateek, tradiziozko batasunek, udal-elkarteek eta administrazio barrutiek ere beren parte izaten ahalko dute.

5. Udal agintaldi bakoitzeko bigarren urteko lehen sei hilabetekoan, Nafarroako Gobernuak, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena egin ondoren, Nafarroako Parlamentura honako hauek bilduko dituen arau-proiektu bat bidaliko du:

a) Toki ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa hurrengo lau aurrekontu-ekitaldietan zein izanen den.

b) Udal agintaldiaren hurrengo lau urteetarako zein izanen den aipaturiko funtsa banatzeko formula, artikuluko honetako 3. eta 4. zenbakiak adierazitako irizpide orokorren arabera.

6. Udal eta kontzejuek Nafarroako zergetan parte hartzeko duten funtsaren izaera juridikoa kontuan harturik, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean abenduaren 31n inbertsioetarako xedaturik eta betebeharra onartu zain dauden diru-kopuruak betebehara onartuak izanen dira ondorio guztietarako.

Funtseko gerakinen kontu jakin batzuetan gerta litezkeen gastu-gutxitzeak funtseko gerakinen beste kontu batzuetan gerta litezkeen gastu handiagoak finantzatzeko erabil daitezke, edo ekitaldi indarduneko aurrekontu-funtsera gehitu.

Ekitaldi ekonomikoan erabiltzen ez diren funtseko baliabideak haren kopuruari gehituko zaizkio hurrengo ekitaldian.”

18/2011 Legeko 3. artikulua bitartez eta 19/2011 Legeko lehen xedapen gehigarriaren bitartez, aipatu berri dugun 6. idatz-zatia aldatu zen. Hori dela eta, araudi indardunak honakoa ezartzen du:

“2011ko ekitaldian hartutako konpromiso ekonomikoak, baldin eta foru lege honek indarra duela hartuak badira, bai eta hurrengo ekitaldietan hartutakoak ere, dagozkien ekitaldi ekonomikoetara egotziko zaizkie, hau da, kontuan hartuta zein den Toki Inbertsioen Plana erregulatzen duen araudia aplikatuz ateratzen den ordainketen aurreikuspen erreala.

Aurreko idatz-zatian ezarritakoa betez, aurrekontu-ekitaldi bati baino gehiagori egozten bazaizkio konpromiso ekonomikoak, gastu horiek, ondorio guztietarako, urte anitzeko gastu gisa hartuko dira.

2009tik 2012ra bitarteko Toki Azpiegituren Planak indarra duen bitartean, toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsa osatzen duten eta Nafarroako Parlamentuak onetsi dituen kredituak, kapital transferentzien arloan, aurrekontuetan erabili gabe badaude ekitaldia ixtean, edo jatorria ekitaldi itxietako ekonomian badute, diruzaintzako soberakin atxikitzen hartuko dira.

Kreditu horiek 2009-2012 planeko ekitaldi bakoitzeko aurrekontu kredituarekin batera esleituko dira, aurrekontuen erritmoaren arabera eta funts horien exekuzioaren arabera; erritmo horren arabera, hurrengo ekitaldietara esleitu daitezke, baina diru zenbateko osoa aldatu gabe. “

Kapital-transferentziak banatzeko, denboran zehar zenbait plan egin dira, toki entitateei zerbitzuak emateko behar dituzten azpiegiturek emate aldera: ur hornidura, zolatzak, argiteria, hondakinak deuseztatzea eta abar.

Araudi hori irakurrita, ondorioztatzen da ezen partaidetza hori, zeina aurrekontuen ikuspuntutik transferentzia batzuetan islatzen baita, egiazki Ogasunak bildutako tributuetatik toki entitateei dagokien zatia dela.

Azterketa-lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin du, Nafarroako Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin.

II. TRANSFERENTZIAK 2012ko AURREKONTUAN ETA HORIEN BILAKAERA AZKEN URTEETAN

Nafarroako Gobernuaren 2012ko aurrekontuak 3.625 milioi euroko gastu-betetzea erakusten du. Horietatik, kapital-transferentzien kapituluak 241 milioi egiten du; kopuru horrek, izan ere guztizko gastuaren ehuneko 6,7 egiten du. Toki entitateei bideratutako transferentziek 45,7 milioi egiten dute; hau da, 2012ko gastuen aurrekontuaren ehuneko 1,26.

45,7 milioi horietatik, Funtsari 24 aurrekontuko 24 kontusail dagozkio -32,7 milioi egiten dute guztira, ehuneko 72- eta bestelako transferentziei 39 kontusail dagozkie -12,9 milioi euro egiten dute guztira, ehuneko 28-.

11 kontusailek ez dute aurrekontu-betetzetik eta 14 kontusailek, berriz, milioi bat eurotik gorako betetzea dute -guztira, 34,3 milioi euro egiten dute, ehuneko 75-.

2003an eta 2012an, honakoak izan dira toki entitateei egindako transferentzien kopuruak:

2003-2012 urteetako gastuak

Urtea	Zenbatekoa
2003	81.976.584
2004	88.487.952
2005	97.188.821
2006	106.241.362
2007	131.635.913
2008	141.201.179
2009	104.757.229
2010	101.635.985
2011	38.911.814
2012	45.694.440
Guztira	937.731.280

Xedeari erreparatuta, aldi horretan 20 milioiko kopurua gainditu duten transferentziak honako-etara bideratu dira:

2003-2012 urteetako kontzeptu nagusiak

Multzoa	Orokorra, guztira	Guztizkoaren gainean	Metatua
Zolatzeak	118.297.046	12,62	12,62
Goi presioan ura hornitzea	80.048.365	8,54	21,15
Horniketa eta saneamendurako herriko sareak	74.557.039	7,95	29,10
Ikastetxeak	69.615.289	7,42	36,53
Kirol instalazioak	59.800.390	6,38	42,90
Nekazaritza / abeltzaintza / oihangintza	59.426.909	6,34	49,24
Ibaiak. Saneamendua, arazketa, hobekuntza	48.864.117	5,21	54,45
Libreki erabakitakoak	40.000.000	4,27	58,72
Kultura eta gizarte etxeak	36.692.772	3,91	62,63
Hiri hondakin solidoak Tratamendua	35.918.457	3,83	66,46
0-3 urteko eskolatzeara	34.291.625	3,66	70,12
Udal eraikinak	22.490.054	2,40	72,52
Argiteria publikoa	21.676.383	2,31	74,83
Turismoa	21.480.132	2,29	77,12
Plan berezia, andeatutako eremuak	20.832.863	2,22	79,34
Suhiltzaileekiko hitzarmenak / Larrialdietarako laguntzak	20.593.592	2,20	81,54

Ikus daitekeen bezala, transferentzien ehuneko 81,5 16 xede desberdinetan biltzen dira.

III. ARAUDIA

Nafarroak eskumenak dauzka toki ogasunei dagokiena erregulatzeko. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeak, 259. artikuluan, ezartzen du toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaizkiela beren eskumenak betetzeko. Foru lege bereko 260. eta 261. artikuluek, bai eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 5. artikulua ere, ezartzen dute toki ogasunen baliabide iturriak izanzen direla, besteak beste, beren tributua eta Foru Komunitatekoetan eta Estatukoetan dagokien partaidetza.

Araudi orokor horren ondoan eta Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen ondoan, honakoak dira txosten honen eraginetarako kontuan hartu behar diren arauak:

1. 2001-2003 aldirako toki azpiegituren plana. Honakoa da plan horretan eragina duen araudia:

- Otsailaren 28ko 22/2000 Foru Agindua, 2001-2003 aldiko toki azpiegituren plana egiteko neurriei buruzkoa.
- Uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legea, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urterako planari buruzkoa.
- Azaroaren 20ko 367/2000 Foru Dekretua, 2001-2003 aldirako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko 7/2000 Foru Legea garatzen duen Erregelamendua onesten duena.
- Uztailaren 5eko 16/2001 Foru Legea, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko plan bereziari buruzkoa.
- Uztailaren 2ko 24/2002 Foru Legea, toki ogasunen parte hartzeko funtsaren formula 2002tik 2004ra bitarterako ezartzen duena.
- Azaroaren 19ko 30/2002 Foru Legea, 2004rako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa.
- Nafarroako Gobernuaren kasuko erabakiak.

2. 2005-2008 aldirako toki azpiegituren plana.

- Martxoaren 29ko 12/2004 Foru Legea, 2005-2008 eperako toki azpiegituren planari buruzkoa.
- Abenduaren 3ko 17/2004 Foru Legea, parte hartzeko funtsaren formula ezartzen duena 2005etik 2008ra bitarterako.
- Abenduaren 27ko 380/2004 Foru Dekretua, 12/2004 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duena.
- Urtarrilaren 24ko 17/2005 Foru Dekretua, 12/2004 Foru Legea garatzen duen Erregelamendua onesten duena.
- Maiatzaren 20ko 137/2005 Foru Agindua, toki azpiegituren 2005-2008 aldirako planaren proposamena onesten duena.
- Martxoaren 17ko 3/2006 Foru Legea, 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa.
- Nafarroako Gobernuaren kasuko erabakiak.

3. 2009-2012 eperako toki inbertsioen plana.

- Urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea, 2009-2012 eperako toki inbertsioen planari buruzkoa.
- Urtarrilaren 19ko 5/2009 Foru Dekretua, 16/2008 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duena.
- Ekainaren 22ko 68/2009 Foru Agindua, toki inbertsioen ohiko planaren proposamena onesten duena.
- Nafarroako Gobernuaren 2009ko urriaren 5eko Erabakia, 2009-2012 eperako toki inbertsioen plana onesten duena.
- Ekainaren 17ko 13/2010 Foru Legea, 2009-2012 eperako toki inbertsioen planaren ohiz kanpoko planari buruzkoa.
- Nafarroako Gobernuaren 2010-07-5eko Erabakia, 2009-2012 eperako toki inbertsioen planaren ohiz kanpoko plana onesten duena.
- Nafarroako Gobernuaren 2011-03-14ko Erabakia, 2009-2012 eperako toki inbertsioen planaren 1. zabalpena onesten duena.
- Azaroaren 30eko 18/2011 Foru Legea, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa aldatzen duena 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako.

IV. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Txosten honen helburua da ezagutzea, batetik, zein baliabide erabili diren, eta, bestetik, zer-tarako erabili diren Zerga Ogasunak Nafarroako toki entitateei egindako transferentziak. Zehazki, kontua ez da dirua emateko eta kudeatzeko prozedurak aztertzea, baizik eta horien bolumena, jarduera, transferentziak jasotzen dituzten erakundeen kopurua, baliatutako kontusailak, eta abar.

Lana zentratu da, beraz, 76. artikuluko ekonomikoari dagozkion kontusailen azterketan; hau da, Nafarroako toki entitateei egindako kapital-transferentzietan. Artikulu horrek, 7600 kodearen barruan, funtsetik heldu diren transferentziak jasotzen ditu; 7609 kodearen barruan, berriz, beste kontzeptu batzuetatik heldutakoak jasotzen ditu.

Lana Nafarroako Gobernuaren kontularitza-sistemako kontularitza-erregistroetatik abiatuta egin da.

2003tik 2012ra bitarteko urteetako 76. artikuluko kontusailetan aitortutako betebeharren kontabilitate-idazpenak batuta, ikusten dugu 1.049 hartzekodun edo "hirugarren" dagoela.

Aipatutako 1.049 "hirugarren" horietatik, guztiak ez dira berez toki entitateak. Honelaxe banatzen dira diru-sarrerak:

- 272 udal.
- 356 kontzeju.
- 99 mankomunitate, erakunde autonomo, patronatu eta udal enpresa.
- 59 "bestelako hirugarren": ureztatzaileen sindikatu edo erkidegoak, fazeroak, Mendi Zerbitzuak herri-lurretarako emandako diru-laguntzak (orokorra).
- 263 pribatu edo "bestelako": Murtziako Erkidegoa (lurrikarak eragindako kalteak), Nafarroako Gobernuko Abeltzaintza Zerbitzua, Nafarroako Gobernuko enpresa publikoak, pribatuak (eraikitzaileak, egoitzak...).

Ahal izan dugun neurrian, idazpen horiek beren toki entitateei esleitzen saiatu gara, baina ez da beti egingarri gertatu.

Hori dela eta, ezinezko gertatzen zaigu toki entitate bakoitzari esleitzea dagokion zenbateko zehatza.

Muga hori kontuan hartu beharra dago egindako azterketaren datuak baloratzeko garaian.

Bestalde, muga bat ez bada ere, datuak baloratzerakoan kontuan hartu beharra dago populazioak, zenbait adierazle lortzerakoan, izan duen eragina. Hartara, kopuruari erreparatuta oso handia ez den inbertsio bat munta handiko kopuru bat izan daiteke biztanle bakoitzeko zenbatekoak aztertzerakoan.

Sektore publikoaren auditoriari dagokionez Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko eta Kontuen Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garaturiko printzipioei eta araei jarraituz egin da lan hau, eta azterlanaren helburuen eta lanaren berezitasunaren arabera beharrezkotzat jotako egokitzapenak egin dira.

V. ONDORIO OROKORRAK

Hona hemen egindako lanetik ateratzen diren ondorio orokorrak:

1. Toki entitateei 2003-2012 aldian egindako transferentzien laburpena honako taula honetatik eratorritakoa da:

9
Gastuen aurrekontuko 76. artikulua laburpena. 2003tik 2012ra.

Urtea	A.B., 76. art. Ekon.	1 milioi baino gehiagoko kontusailak				Parlamentuak zuzendutako kontusailak									
		Kontu-sail kop., guztira	A.B., guztira	Art. gai-gai-nean	Bete gabeko kontu-sail kop.	Bete gabeko kontu-sail kop.	Kontu-sail kop.	A.B., guztira	76. art. gainean	Kontusail kop.	A.B., guztira	76. art. gainean	Bete gabeko kontu-sail kop.	Bete gabeko kontu-sail kop.	
2003	81.976.584	7600	95	81.976.584	100,00	31	64	22	69.499.907	84,78	5	5.639.214	6,88	4	1
2004	88.487.952	7600	77	88.487.952	100,00	13	64	21	74.637.541	84,35	9	4.296.882	4,86	6	3
2005	97.188.821	7600	77	97.188.821	100,00	11	66	24	85.182.747	87,65	9	7.907.993	8,14	9	0
2006	106.241.362	7600	19	63.186.774	59,47	2	17	10	59.831.467	56,32	0				
		7609	61	43.054.588	40,53	14	47	13	32.811.860	30,88	6	5.987.011	5,64	6	0
		7600	80	106.241.362	100,00	16	64	23	92.643.327	87,20	6	5.987.011	5,64	6	0
2007	131.635.913	7600	19	60.336.866	45,84	2	17	11	58.691.722	44,59	0				
		7609	79	71.299.048	54,16	3	76	21	59.282.298	45,04	13	8.888.541	6,75	13	0
		7600	98	131.635.913	100,00	5	93	32	117.974.020	89,62	13	8.888.541	6,75	13	0
2008	141.201.179	7600	18	55.423.513	39,25	2	16	11	53.383.170	37,81	0				
		7609	76	85.777.667	60,75	13	63	17	72.512.834	51,35	24	43.340.994	30,69	22	2
		7600	94	141.201.179	100,00	15	79	28	125.896.005	89,16	24	43.340.994	30,69	22	2
2009	104.757.229	7600	25	48.414.508	46,22	7	18	5	45.599.854	43,53	0				
		7609	69	56.342.721	53,78	8	61	13	42.358.915	40,44	21	35.910.716	34,28	21	0
		7600	94	104.757.229	100,00	15	79	18	87.958.769	83,96	21	35.910.716	34,28	21	0
2010	101.635.985	7600	24	53.076.187	52,22	2	22	14	50.095.524	49,29	0				
		7609	76	48.559.799	47,78	17	59	14	37.101.642	36,50	31	25.361.934	24,95	27	4
		7600	100	101.635.985	100,00	19	81	28	87.197.165	85,79	31	25.361.934	24,95	27	4
2011	38.911.814	7600	24	13.660.629	35,11	2	22	5	7.611.224	19,56	0				
		7609	64	25.251.185	64,89	18	46	5	14.887.523	38,26	23	6.843.519	17,59	19	4
		7600	88	38.911.814	100,00	20	68	10	22.498.747	57,82	23	6.843.519	17,59	19	4
2012	45.694.440	7600	24	32.734.480	71,64	0	24	11	28.576.966	62,54	0				
		7609	28	12.959.960	28,36	11	17	3	5.731.071	12,54	0				
		7600	52	45.694.440	100,00	11	41	14	34.308.037	75,08	0				
Guz-tira	937.731.280		855			156	699	220	797.796.264		144.176.803	127	14		

A.B.: aitorrutako betebeharrak

Datu horien arabera:

- Aldi honetan izan den gastua 938 milioikoa izan da, 855 gastu-kontusailetan banatua. Hori-etatik, 156k ez dute betetzerik izan; horrenbestez, toki entitateei eginiko transferentziak 699 kontusailetatik egin dira.
- 220 kontusailek milioi bat eurokoa baino betetze handiagoa izan dute, eta 798 milioiko guztizko kopurua hartzen dute; hau da, guztizkoaren ehuneko 85.
- Parlamentuak eginiko zuzenketen bidez sartutako 141 kontusailek 144 milioiko betetzea izan dute, eta guztizkoaren ehuneko 15 egiten dute.
- Gastu handiena egin zen ekitaldia 2008koa izan zen, 141 milioirekin; gastu txikiena, berriz, 2011n egin zen, eta 39 milioikoa izan zen. Horri dagokionez, gogorarazi beharra dago, sarrerako atalean adierazi bezala, 2011n kontabilizatze-sistema aldatu zela, eta urte horretatik transferentziak ordainketa-korronte errealaren arabera erregistratu direla.

2. Transferentzien laburpena, xedearen arabera, honako taula honetatik ondorioztatzen dena da:

2003-2012 aldiko transferentziak, xedearen arabera

Multzoa	Orokorra, guztira	Gutzizkoaren gaineko ehunekoa	Metatua (%)
Zolatzeak	118.297.046	12,62	12,62
Goi presioan ura hornitzea	80.048.365	8,54	21,15
Horniketa eta saneamendurako herriko sareak	74.557.039	7,95	29,10
Ikastetxeak	69.615.289	7,42	36,53
Kirol instalazioak	59.800.390	6,38	42,90
Nekazaritza / abeltzaintza / oihangintza	59.426.909	6,34	49,24
Ibaiak. Saneamendua, arazketa, hobekuntza	48.864.117	5,21	54,45
Libreki erabakitakoak	40.000.000	4,27	58,72
Kultura eta gizarte etxeak	36.692.772	3,91	62,63
Hiri hondakin solidoak Tratamendua	35.918.457	3,83	66,46
0-3 urteko eskolatzeara	34.291.625	3,66	70,12
Udal eraikinak	22.490.054	2,40	72,52
Argiteria publikoa	21.676.383	2,31	74,83
Turismoa	21.480.132	2,29	77,12
Plan berezia, andeatutako eremuak	20.832.863	2,22	79,34
Suhiltzaileekiko hitzarmenak / Larraldietarako laguntzak	20.593.592	2,20	81,54
Hirugarren adina. Egoitzak-eguneko zentroak-jubilatuak elkarteak	18.122.305	1,93	83,47
Iruñeko autobus geltoki berria	16.424.944	1,75	85,22
Hiri hondakin solidoak Bilketa	15.234.524	1,62	86,84
Eremu publikoak / Hiri altzariak	10.705.669	1,14	87,99
Zentro medikoak: Konsultategiak, ELZak	10.154.008	1,08	89,07
Plan berariazkoa	9.494.237	1,01	90,08
Tokiko bideak	7.955.441	0,85	90,93
Hondakin berariazkoak	7.750.894	0,83	91,76
Azpiegiturak	6.674.506	0,71	92,47
Batzuk	6.666.082	0,71	93,18
Harri-lubetak	6.077.283	0,65	93,83
Industrialdeak	5.974.307	0,64	94,46
Hilerriak	5.134.937	0,55	95,01
Arkeologia eta ondare historikoa	4.961.323	0,53	95,54
Etxebizitza / Hirigintza planeamendua	4.856.705	0,52	96,06
Administrazioen arteko lankidetzak	4.701.073	0,50	96,56
Informazioaren teknologiak	4.171.987	0,44	97,00
Eraikin, kale eta bideetako jarduketak bereziak	3.366.511	0,36	97,36
Gazteria, ekipamenduak, obrak	3.091.020	0,33	97,69
Zeharbideen urbanizazioa	2.660.938	0,28	97,98
2011-2012 plan berezia	2.623.254	0,28	98,26
Artxiboak eta liburutegiak	2.587.020	0,28	98,53
Plan osagarria	2.072.869	0,22	98,75
Hiri bideetan arkitektura-oztopoak kentzea	2.037.070	0,22	98,97
Efizientzia energetikoa / Energia berriztagarriak	1.994.206	0,21	99,18
Plan gehigarria 4050	1.954.047	0,21	99,39
Tokiko Agenda 21	1.314.726	0,14	99,53
Elektrifikazioak	919.205	0,10	99,63
Garraioa	907.087	0,10	99,73
Administrazio antolaketa	659.930	0,07	99,80
Inbertsio planerako azterlanak	641.431	0,07	99,87
Biodibertsitatearen kontserbazioa	577.055	0,06	99,93
Energia / Energia berriztagarriak	331.048	0,04	99,96
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	319.589	0,03	100,00
2005-2008 planaren zabalpena	29.013	0,00	100,00
Orokorra, guztira	937.731.280	100,00	

Datu horien arabera:

- Transferentziei dagokien 938 milioiko kopurua 51 xederen arabera antolatu dugu.
- Kopuru horren ehuneko 81,5 16 xederako erabiltzen da, eta xede horiek 20 milioitik gorako betetzea dute 2003/2012 aldian.
- Ikus daitekeen bezala, zolaberritzea eta hornikuntzak dira transferentzien xede garrantzitsuenak.

1. eranskinean, taula hori ematen da, urteen arabera xehakapenarekin.

3. Ondoren, transferentziak aurkezten ditugu, hirugarren onuradunen zenbateko-tarteen arabera emanak.

Tarteak - Euroak	Kontabilitateko hirugarrenak	Ehunekoa, guztiaren gainera	Tartearen zenbatekoa	Ehunekoa, guztiaren gainera	Batez besteko zenbatekoa	Ehuneko metatua
> 50.000.001	2	0	121.380.549	12,94	60.690.275	12,94
20.000.001 a 50.000.000	3	0	104.672.409	11,16	34.890.803	24,11
10.000.001 a 20.000.000	7	1	93.728.364	10,00	13.389.766	34,10
5.000.001 a 10.000.000	27	3	181.446.052	19,35	6.720.224	53,45
1.000.001 a 5.000.000	130	12	309.815.558	33,04	2.383.197	86,49
500.001 a 1.000.000	64	6	47.062.618	5,02	735.353	91,51
100.001 a 500.000	263	25	65.704.560	7,01	249.827	98,52
50.001 a 100.000	113	11	8.258.222	0,88	73.082	99,40
10.001 a 50.000	187	18	4.854.398	0,52	25.959	99,91
1.001 a 10.000	184	18	783.409	0,08	4.258	100,00
1 a 1.000	66	6	25.140	0,00	381	100,00
0	3	0	0	0,00	0	100,00
	1.049	100	937.731.280	100,00	893.929	

Datu horien arabera:

- Soilik bi "hirugarren" dira berrogeita hamar milioi euroko kopurua gainditzen dutenak (Iruñeko Udala eta Iruñerriko Mankomunitatea); bien artean, urte guztietan aitortutako betebeharren ehuneko 12,94 egiten dute, 60,7 milioiko batez besteko zenbatekoarekin.

- Hiru "hirugarrenek" 20 milioi eurotik 50 milioi eurora bitarteko aitortutako betebeharrak dituzte (Nilsa, Jurrmendiko Mankomunitatea eta Nekazaritza Departamentuko "orokor" bat, "mendietako herri-lurretarakoa"); guztira, aitortutako betebeharren ehuneko 11,16 egiten dute: 34,9 milioi euro.

- 39 "hirugarrenek" aitortutako betebeharren ehuneko 53,45 jasotzen dute.

- "Hirugarrenen" kopuru handiena (263) dagoen tartea "100.001 eurotik 500.000 eurora" bitartekoa da, eta batez besteko kopurua 249.827 eurokoa da; ondotik, "10.001 eurotik 50.000 eurora" bitartekoa dago, 189 "hirugarrenekin", eta "1.001 eurotik 10.000 eurora" bitarteko tartea, 186 "hirugarrenekin".

- Hiru "hirugarren" badaude betetzerik ez dutenak.

Toki entitate ez diren "hirugarrenak" egote hori gertatzen da, oro har, ekintzako egiazko onuraduna (toki entitatea) aipatu orde, moneta-fluxuaren hartzailea aipatzen delako.

2. eranskinean, onuradunen zerrenda osoa ematen dugu, zenbatekoaren arabera antolatua.

Gomendatzen dugu kontabilitate-sistemak eskaintzen dituen aukerez baliatzea “hirugarren” gisa erregistratzeko jarduketaren egiazko onuraduna, ordainketa nori egiten zaion alde batera utzita.

4. Ondoren, transferentzien azterketa bat egiten dugu, toki entitate onuradunen populazioaren arabera.

Horretarako, udalen populazioa hartu dugu aintzat, eta, ahal dela, horiei egotzi dizkiegu konzeju eta erakunde autonomoek jasotako kopuruak. Logikoa den bezala, ezin izan zaie udalei egotzi udal anitzeko beste erakunde batzuei zuzendutakoak –esate baterako, mankomunitatearentzat direnak edo NILSarentzat eta abar–, ez eta “onuradun orokor” bat dutenak ere –besteak beste, herri-lurra eta ureztatzaileen sindikatuak–.

2012ko urtarrilaren 1eko erroldako biztanleak hartu ditugu kontuan: 644.566 biztanle jasotzen ditu. Muga horiekin udalei egotzi ahal izan dizkiegun aitortutako betebeharrak 635.095.162 eurokoak dira, eta guztizkoaren ehuneko 68 egiten dute.

4. a) Honakoak izan dira egindako transferentziak, udalen tarteen arabera:

Gastu-tarteak, biztanleen arabera:

Udal kopurua	Udalerrietako biztanle kopurua	Biztanleria, guztira	A.B., guztira	ABen eta tarteko biztanleen batez bestekoa	Tarteko udal kopuruak udalen guztizkoan egiten duen ehuneko	Tarteko udalen ABk ABen guztizko kopuruan egiten duen ehuneko
37	100 biztanle bitarte	2.305	13.546.180	5.877	13,60	2,13
112	101 - 500	26.149	98.519.019	3.768	41,18	15,51
63	501 - 2.000	62.242	141.490.668	2.273	23,16	22,28
38	2001 - 5.000	116.300	166.395.449	1.431	13,97	26,20
12	5.001 - 10.000	86.640	81.666.499	943	4,41	12,86
9	10.001 - 50.000	153.326	67.290.081	439	3,31	10,60
1	>50.000	197.604	66.187.266	335	0,37	10,42
272	Guztira	644.566	635.095.162	985	100,00	100,00

AB: Aitortutako betebeharrak

Hauek dira azterketa honetatik atera ditzakegun datuak:

- Udalen ehuneko 41 101-500 tartean daude, eta 2003-2012 aldian aitortutako betebeharren ehuneko 15,51 egiten dute.
- 501-2000 biztanleren tartean udalen ehuneko 23,16 daude. Aitortutako betebeharren ehuneko 22,28 egiten dute.
- Biztanle bakoitzeko kopururik handiena “100 biztanle bitarte” tarteko 37 udaletan gertatzen da, biztanle bakoitzeko batez besteko zenbatekoa 5.877 eurokoa baita; ondoren “101-500” tartea dator, 3.768 euroko batez bestekoarekin.
- Iruñeko Udalak –197.604 biztanle– batez besteko kopuru txikiena dauka, 335 eurokoa; ondotik, “10.001-50.000” tartea dator, biztanle bakoitzeko 439 euroko kopuruarekin.
- “5.001-10.00” tartea da, biztanle bakoitzeko 942,60 euroko kopuruarekin, biztanle bakoitzeko 985 euroko batez bestekora gehien hurbiltzen dena.

4. b) Biztanle bakoitzeko kopururik handiena hartzen duten udalak honako taulan ageri direnak dira:

Biztanle bakoitzeko 10.000 euro baino gehiago hartu dituzten udalak:

Udalaren izena	Udalerriak zenbat biztanle	Aitortutako betebeharrak	Biztanle bakoitzeko aitortutako betebeharrak
Girgillaoko Udala	92	1.668.981	18.141
Gazteluberriko Udala	16	209.810	13.113
Ariako Udala	58	676.014	11.655
Zugarramurdiko Udala	243	2.710.935	11.156
Elgorriagako Udala	205	2.275.651	11.101
Erronkariko Udala	250	2.737.119	10.948
Goñiko Udala	189	2.066.222	10.932
Azueloko Udala	38	396.177	10.426
Lergako Udala	74	764.858	10.336
Petilla de Aragongo Udala	29	298.293	10.286
Urrozko Udala	398	4.048.482	10.172

4. c) Biztanle bakoitzeko kopururik txikiena hartzen duten udalak honako taulan ageri direnak dira:

Biztanle bakoitzeko 500 euro baino gutxiago hartu dituzten udalak:

Udalaren izena	Udalerriak zenbat biztanle	Aitortutako betebeharrak	Biztanle bakoitzeko aitortutako betebeharrak
Eguesibarko Udala	17.450	2.415.810	138
Barañaingo Udala:	21.444	4.174.811	197
Xabierko Udala:	120	29.450	245
Zizur Nagusiko Udala	14.084	3.700.357	263
Iruñeko Udala	197.604	66.187.266	335
Adiosko Udala	189	67.513	357
Antsoaingo Udala	10.938	4.289.266	392
Bulatako Udala	18.162	8.566.944	472
Arellanoko Udala	207	101.593	491

Bistan denez, biztanle kopuruak eragin nabarmena dauka biztanle bakoitzeko kopuruan. Hartara, udal txikiak dira biztanle bakoitzeko kopuru handiena jasotzen dutenak, eta udal handienak dira kopuru txikiak jasotzen dituztenak.

Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharra dago datu horietan nolako eragina duten mankomunitateak ez dauden herri txikiak hornidura-lanek. Halaber, biztanle bakoitzeko kopuru txikiagoa duten zenbait herri Iruñerrikoak dira eta, horrenbestez, ez zaizkie egozten Iruñerriko Mankomunitateak jasotako transferentziak; izan ere, mankomunitate hori da kopuruaren arabera zerrendan bigarren tokian dagoena.

3. eranskinean, udalen kopuruak ematen ditugu, kopuruaren arabera antolatuta; 4. eranskinean, berriz, kopuru horiek biztanle bakoitzeko zenbatekoaren arabera antolatu ditugu.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

1. eranskina. Transferentziak, urtearen eta xedearen arabera

Multzoa	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Orokorra, guztira	Guztizkoaren gainean
Zolatzak	3.580.015,74	13.178.974,27	16.564.759,52	23.088.553,69	17.385.676,65	14.805.939,73	1.626.590,38	16.263.674,20	3.956.378,46	7.846.483,00	118.297.045,64	12,62
Goi presioan ura hornitzea	6.044.664,42	16.560.743,15	17.426.547,03	8.881.816,37	10.365.976,37	6.358.316,94	1.458.920,18	6.237.019,59	886.712,78	5.827.648,52	80.048.365,35	8,54
Horniketa eta saneamendurako herriko sareak	6.293.362,41	7.271.915,46	7.567.414,31	12.711.614,21	11.756.831,73	10.720.013,45	1.657.985,86	8.718.653,87	1.332.971,62	6.526.276,07	74.557.038,99	7,95
Ikastetxeak	1.090.888,25	1.295.890,80	537.809,21	2.792.989,89	8.509.575,45	17.625.696,60	15.827.212,87	13.413.391,85	7.194.255,86	1.327.578,03	69.615.288,81	7,42
Kirol instalazioak	7.143.878,89	5.824.375,15	4.936.171,45	5.231.299,00	10.978.135,41	15.403.014,74	4.431.661,00	2.972.671,88	1.108.100,00	1.771.062,37	59.800.389,89	6,38
Nekazaritza / abeltzaintza / oihangintza	6.027.701,67	4.480.176,85	7.423.129,81	5.658.148,07	11.447.003,34	7.090.173,06	6.051.566,80	5.295.612,65	3.370.723,03	2.582.673,66	59.426.908,94	6,34
Ibaiak. Saneamendua, arazketa, hobekuntza	4.020.756,80	7.211.575,18	8.044.891,15	5.169.966,84	7.927.629,05	6.154.078,99	2.107.740,99	3.646.061,71	2.222.217,46	2.359.199,23	48.864.117,40	5,21
Libreki erabakitakoak							40.000.000,00				40.000.000,00	4,27
Kultura eta gizarte etxeak	3.270.926,06	3.260.081,29	3.184.409,17	2.467.387,31	3.722.483,02	3.767.147,53	5.907.902,98	5.152.499,96	4.094.568,55	1.865.367,62	36.692.772,49	3,91
Hiri hondakin solidoak Tratamendua	9.366.075,14	4.482.500,05	5.126.706,47	1.342.837,90	1.155.796,17	6.036.915,34	1.531.112,76	4.626.225,04	475.559,34	1.774.728,81	35.918.457,02	3,83
0-3 urteko eskolatzeara	3.501.292,20	983.132,93	1.924.993,09	5.039.763,76	4.851.166,87	5.938.871,19	7.426.493,57	3.477.354,25	1.148.557,52		34.291.625,38	3,66
Udal eraikinak	2.000.296,02	1.795.013,01	2.016.527,60	2.798.962,69	2.783.209,37	2.603.233,14	2.495.498,77	3.089.882,18	1.373.708,21	1.533.722,80	22.490.053,79	2,40
Argiteria publikoa	1.417.346,78	1.596.208,32	1.585.103,92	1.760.320,51	5.063.273,99	1.937.567,45	655.146,76	2.886.035,37	2.481.622,82	2.293.757,94	21.676.382,86	2,31
Turismoa	946.670,00	2.090.503,49	2.993.837,81	2.760.902,16	2.431.211,73	2.902.536,14	1.880.760,44	3.880.566,09	801.342,84	791.801,05	21.480.131,75	2,29
Plan berria, andeatutako eremuak	4.708.748,52	2.603.219,95	1.817.296,38	5.797.737,63	3.263.262,40	2.467.781,03	104.165,12	4.722,13	5.919,48	60.010,72	20.832.863,36	2,22
3. adinekoen egonlekuak-eguneko zentroak- jubilatuen elkarteak	5.595.790,08	2.592.800,96	71.000,00	2.428.894,18	4.392.047,80	3.496.388,24	862.692,53	224.763,66	529.173,72	400.041,27	20.593.592,44	2,20
Suhiltzaileekin hitzarmenak / Larrialdietarako	1.904.370,43	636.265,00	117.203,54	3.782.570,74	2.703.520,11	2.510.068,81	2.355.394,76	2.630.595,83	309.883,32	1.172.432,92	18.122.305,46	1,93
Iruñeko autobus geltoki berria			600.000,00	1.000.000,00	2.000.000,00	12.824.944,00					16.424.944,00	1,75
Hiri hondakin solidoak Bilkeia	660.461,32	1.635.324,96	1.232.755,15	1.230.994,65	1.109.920,00	2.453.881,88		4.331.537,03	978.607,29	1.601.051,74	15.234.524,02	1,62
Erenu publikoak / Hiri altzarriak	978.931,97	1.347.996,42	175.971,19	1.142.689,36	4.916.957,04	1.377.905,83	483.934,10	236.283,36	45.000,00		10.705.669,27	1,14
Zentro medikoak, Kontsultategiak, ELZak	598.450,72	593.434,48	726.465,93	827.963,68	835.910,98	906.257,61	2.293.655,09	1.512.284,63	1.235.568,34	624.016,13	10.154.007,59	1,08
Plan berriak	5.484.136,52	822.477,99	3.187.622,98								9.494.237,49	1,01
Tokiko bideak	239.667,15	2.210.070,43	694.735,05	981.453,51	601.779,02	829.585,13	130.256,58	1.285.895,19	455.963,54	526.035,71	7.955.441,31	0,85
Hondakin berriak	1.264.821,46	224.742,73	1.138.971,30	981.148,59	1.452.589,60	2.052.506,06	32.496,24	186.837,92	67.870,92	348.909,26	7.750.894,08	0,83
Azpiegiturak	187.000,00				4.413.579,80	1.581.050,27	36.000,00		456.875,73		6.674.505,80	0,71
Batzuk	62.163,25	846.519,63	282.905,16	418.789,39	397.739,96	385.515,63	991.428,87	3.006.963,64	267.916,57	6.140,32	6.666.082,42	0,71
Hari-lubetak	746.010,09	489.209,13	380.453,39	485.020,33	1.867.858,28	446.270,69	565.838,88	483.154,83	361.575,82	251.891,10	6.077.282,54	0,65
Industrialdeak	396.134,11	950.758,07	607.614,64	148.009,84	967.362,86	1.037.121,22	904.169,57	524.127,43	200.000,00	239.009,22	5.974.306,96	0,64
Hilerriak	606.876,75	268.583,15	484.775,62	767.805,38	469.043,81	840.617,75	56.146,50	804.246,55	202.111,41	634.730,46	5.134.937,38	0,55
Arkeologia eta ondare historikoa	648.078,97		489.564,97	2.242.649,94	365.508,30	663.130,01	208.225,28	145.000,00	201.165,81		4.961.323,28	0,53
Etxebizitza / Hirigintza planeamendua	687.420,47	0,00	1.878.592,51	1.600.000,00	409.375,68		0,00				281.316,13	0,52
Administrazioen arteko lankidetzak		200.065,33	483.403,16	396.430,27	528.964,75	355.992,76	687.588,90	424.743,08	929.217,73	694.667,27	4.701.073,25	0,50

Multzoa	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Orokorra, guztira	Guztizkoaren gainean
Informazioaren teknologiak	439.447,02	343.305,97	430.174,55	338.756,90	789.475,55	1.788.447,32	42.379,58				4.171.966,89	0,44
Erakiri, kale eta bideetako jarduketara bereziak								2.577.214,26	789.296,70		3.366.510,96	0,36
Gazteria, ekipamenduak, obrak	292.011,49	306.096,27	47.185,84	146.561,00	204.572,27	132.688,83	901.071,43	768.278,97	206.769,61	85.784,61	3.091.020,32	0,33
Zeharbideen urbanizazioa							301.148,92	2.038.857,42	43.083,14	277.848,43	2.660.937,91	0,28
2011-2012 plan berezia	186.660,48	513.548,87	39.656,00	494.005,87	416.421,88	496.726,77		225.000,00	633.957,81	1.989.296,45	2.623.254,26	0,28
Arxiboak eta liburutegiak			2.072.869,01						215.000,00		2.587.019,87	0,28
Plan osagarria											2.072.869,01	0,22
Hiri bideetan arkitektura-oztopoak kentzea	85.747,64	174.250,45				1.562.661,76	214.409,91				2.037.069,76	0,22
Efizientzia energetikoa / Energia berriztagarriak	70.845,59	159.681,49	415.938,16	367.501,47	304.591,57	455.917,98			219.730,09		1.994.206,35	0,21
Plan gehigarria 4050	1.394.030,22	396.168,80	163.848,00								1.954.047,02	0,21
Tokiko Agenda 21					270.913,74	577.052,60	187.541,03	168.809,52	110.408,79		1.314.725,68	0,14
Elektrifikazioak	101.828,97	109.616,70	110.525,09	171.415,63	131.115,30	149.728,49	144.974,54				919.204,72	0,10
Garratxoak			75.281,10	77.630,21	93.745,23	421.944,21	144.912,23	93.574,40			907.087,38	0,10
Administrazio antolaketa	303.641,97	122.400,00	34.463,26	183.196,06			9.541,79	6.687,40			659.930,48	0,07
Inbertsio planerako azterlanak	136.662,40	119.850,00		133.883,44	212.795,44	37.300,00				939,46	641.430,74	0,07
Biodibertsitatearen kontserbazioa	110.387,00	116.012,88	91.058,19	259.596,98							577.055,05	0,06
Energia / Energia berriztagarriak											331.048,14	0,04
Oinarriko gizarte-zerbitzuak	30.465,11	28.383,31	6.190,00	132.104,71	109.880,22	6.190,00	34.287,56	296.760,58			319.589,35	0,03
2005-2008 planaren zabalpena											29.012,60	0,00
Orokorra, guztira	81.976.584,11	88.487.951,89	97.188.820,71	106.241.362,16	131.635.913,34	141.201.179,18	104.757.228,77	101.635.985,47	36.911.814,31	45.694.440,30	937.731.280,24	100,00

2. eranskina. Onuradunaren arabera transferentziak, zenbatekoen arabera antolatua

Hartzekodunaren izena	Guztira	Guztiaren gainean (%)	Metatua (%)
Iruñeko Udala	65.979.893	7,04	7,04
Iruñerriko Mankomunitatea	55.400.656	5,91	12,94
Navarra de Infraestructuras Locales	44.401.434	4,73	17,68
Jurramendiko Mankomunitatea	31.129.809	3,32	21,00
Mendi Zerbitzuaren diru-laguntzak herri-lurretarako	29.141.166	3,11	24,11
Tuterako Udala	18.267.520	1,95	26,05
Baztango Udala	16.322.375	1,74	27,80
Arian Construcción	13.398.062	1,43	29,22
Tafallako Udala	12.534.127	1,34	30,56
Mairagako Mankomunitatea	11.583.302	1,24	31,80
Erriberako Mankomunitatea	11.027.044	1,18	32,97
Corellako Udala	10.595.934	1,13	34,10
Castejongo Udala	9.673.501	1,03	35,13
Cortesko Udala	9.523.255	1,02	36,15
Nafarroako Hiri Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoa	8.991.600	0,96	37,11
Cintruenigoko Udala	8.718.792	0,93	38,04
Bulatako Udala	8.566.344	0,91	38,95
Lekunberriko Udala	7.916.818	0,84	39,80
Agoizko Udala	7.792.646	0,83	40,63
Izarbeibarko Mankomunitatea	7.690.051	0,82	41,45
Milagroko Udala	7.597.576	0,81	42,26
Lizarrako Udala	7.538.322	0,80	43,06
Azkoiengo Udala	6.678.903	0,71	43,77
Arangurengo Udala	6.453.779	0,69	44,46
Vianako Udala	6.391.007	0,68	45,14
